Lan-eskaintzen erregistroa 2024ko otsailean

• ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan 1.216 eskaintza erregistratu dira 2024ko otsailean, urtarrilean baino 130 gutxiago eta 2023ko otsailean baino 169 gehiago.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen lurralde historikoari dagokionez, 2024ko otsailean 233 eskaintza erregistratu dira Araban, 424 Gipuzkoan eta 559 Bizkaian. Eskaintzen % 19,2 Arabako UAG-etan erregistratu dira, % 34,9 Gipuzkoan eta % 45,9 Bizkaian.

Eskaintzaren Lurralde Historikoa



Araban, hilabete honetan, eskaintzek % 9,4 egin dute gora (20 eskaintza gehiago); Bizkaian % 6,9 egin dute gora (36 eskaintza gehiago); Gipuzkoan, aldiz, eskaintzak behera egin dute, % 30,5 murriztu dira eta (186 eskaintza gehiago).

Iazko hilabete beraren aldean, Araban 33 eskaintza gehiago izan dira (% 16,5eko gorakada); Gipuzkoan 44tan igo dira eskaintzak (% 11,6 gehiago); eta, azkenik, Bizkaia da eskaintzak gehien igo diren lurralde, 92 eskaintza gehiagorekin (+% 19,7).

• ESKAINTZAREN OKUPAZIOA

Okupazio-profilei dagokienez, EAEn erregistratutako eskaintza gehien dituen profila zientzietako teknikariena da, 267 eskaintza eta eskaintza guztien % 22rekin. Ondoren, laguntzako teknikarien profila dago, 251 eskaintza eta % 20,6 ko pisuarekin. Zerbitzuetako, industriako eta ez kualifikatuen okupazio-profilek ere garrantzi handia dute erregistro-eskaintzei dagokienez, eskaintza-bolumenaren ehunekoak % 16,2, % 13,4 eta % 11,4 izan baitira, hurrenez hurren. Eskaintza gutxien erregistratu dituzten profilak lehen sektorekoak eta zuzendaritzakoak dira, 7 eta 13 eskaintzekin, hurrenez hurren.

Aurreko hilabetearen aldean, zientzietako teknikarien profilean igo dira gehien eskaintzak; 59 gehiago eta % 28,4ko igoera erlatiboarekin. Laguntza-teknikarien (+5) eta zuzendarien (+4) eskaintzek ere gora egin dute. Jaitsierarik handienak, aldiz, balio absolutuetan, kualifikatu gabekoen eskaintzetan izan dira, 92 eskaintza gutxiagorekin (-%39,8); balio erlatiboetan, berriz, jaitsierarik handiena lehen sektoreko eskaintzetan gertatu da, % 78,1eko murrizketarekin (-25 eskaintza).

Urte arteko saldoari dagokionez, enplegu guztietan igo dira eskaintzak, lehen sektorekoetan izan ezik, 6 eskaintzatan jaitsi baitira (% 46,2ko murrizketa). Igoerarik handiena, balio absolutu zein erlatiboetan, laguntza-teknikarien profilean gertatu da, 78 eskaintza gehiagorekin eta % 45,1eko hazkundearekin. Kualifikatu gabekoen (+34) eta zerbitzuetako (+29) hazkundeak ere nabarmentzen dira

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako eskaintzen % 44,2 mugagabeak izan dira, eskaintzen % 55,1 aldi baterakoak, eta gainerako % 0,6 merkataritzakoak. Kontratu mugagabeen eskaintzen ehunekoa handia da serie historikoarekin alderatuta, urtarriletik hona ia 8 puntu hazi da; iazko otsailetik hona ere hazi egin da, 3 puntutan hain zuzen ere. Datu horiek indartu egiten dute lan-erreformaren ondoren eskaintza mugagabeen presentzia handiagoa izateko joera. Mugagabeko eskaintzak 538 izan dira, aurreko hilean baino 45 gehiago (% 9,3ko gorakada). Aldi baterako eskaintzek behera egin dute (173 eskaintza gutxiago), 670 izan dira guztira; balio erlatiboetan, beherakada % 20,5ekoa izan da. Azkenik, merkataritzako 7 eskaintza izan da 2024ko otsailean, aurreko hilean baino 3 gutxiago.



Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeko 106 eskaintza gehiago egon dira (% 24,5eko gorakada); aldi baterako eskaintzek ere gora egin dute, % 10 eta 61 eskaintza gehiago. Azkenik, merkataritzako eskaintza 1 gehiago erregistratu da urte arteko konparaketan.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2024ko otsailean erregistratutako eskaintzen % 74,6k 0 eta 6 hil arteko esperientzia behar dute, 907 eskaintza guztira. Eskaintzen % 12,6k (153 guztira) 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia eskatzen dute. Ehuneko txikiagoak dituzte esperientzia-aldi luzeagoa eskatzen duten eskaintzek, hala nola 3 eta 5 urte bitartekoek, % 2,3ko pisuarekin (28 eskaintza) eta 5 urte baino gehiago eskatzen dituztenek; 12 eskaintza eta % 1eko pisua.



Hileko bilakaerari dagokionez, batez ere 0 eta 6 hilabete bitarteko eskaintzen jaitsiera nabarmentzen da, % 13,2ko murrizketa eta 138 eskaintza gutxiagorekin. Aitzitik, 1 eta 3 urte bitarteko eskaintzak dira gehien hazi direnak: % 10,5eko hazkundea eta 11 gehiago izan baitira.

Urteko bilakaerari dagokionez, hileko bilakaeran ez bezala, 0 eta 6 hilabete bitarteko esperientzia-tartearen igoera nabarmentzen da, 157 eskaintza gehiago izan baitira, eta erlatiboki % 20,9 igo da. Igoera hori alde batera utzita, esperientzia-denbora gehien eskatzen duten eskaintzek egin dute gora (22 eskaintza gehiago 3 urte baino gehiago eskatzen dutenen artean); aitzitik, 6 hilabete eta 2 urte bitartean eskatzen duten eskaintzek behera egin dute (-10 eskaintza).

Lan-eskaintzen erregistroa 2024ko otsailean

Otsailean, erregistratutako lan-eskaintzek 8 hilabeteko batez besteko esperientzia eskatu dute, urtarrilean bezala.

• LANALDI MOTA

Ezer baino lehen, aipatu behar da lan-eskaintza guztiek ez dutela zehazten zer lan-jardunaldi egin behar den eskaintzak erregistratzeko orduan; eskaintzen % 14,7k bakarrik zehazten dute lanaldia, aurreko hilean baino 3 puntu gehiago (1.216 eskaintzatik 179k soilik). 179 eskaintza horietatik 142 lanaldi osokoak izan dira, eta gainerakoak 37 lanaldi partzialekoak.



Bilakaerari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 177 gehiago izan dira urtarrilarekin alderatuta, hau da, % 13,6ko igoera. Lanaldi partzialeko eskaintzek gora egin dute 8 eskaintzatan, eta hazkunde erlatiboa % 27,8koa izan da.

Aurreko urteko hil beraren aldean, lanaldi osoko eskaintzak hazi egin dira 22 eskaintzatan (% 18,3 gehiago); lanaldi partzialekoak iazko kopurua errepikatu dute, 37 hain zuzen ere.

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 16 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 9 gehiago eta iazko kopuru bera.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 82k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 1.216 eskaintzetatik 219k soilik zehaztu dute.



219 eskaintza horietatik, 79k Lanbide Heziketa mailako prestakuntza eskatu dute eta beste 79k unibertsitate mailakoak; ikasketa maila hauetako eskaintzak izan dira ugarienak. Ondoren, oinarrizko ikasketa maila eskatu dutenak daude; 46 izan dira otsailean. Azkenik, batxilergoko ikasketak behar dituzten eskaintzak daude, 15 eskaintza guztira.

Hil arteko konparaketan, igoerarik handiena, balio absolutuetan, unibertsitate-ikasketen eskaintzetan gertatu da, 21 eskaintza gehiagorekin eta % 36,2ko hazkundearekin; balio erlatiboetan, igoerarik handiena batxilergoko ikasketak behar dituzten eskaintzetan gertatu da, % 66,7ko hazkundearekin (6 eskaintza gehiago). Aitzitik, beherakadarik handiena, modu erlatiboan, nahitaezko ikasketak eskatzen duten eskaintzetan izan da (% 24,6 gutxiago, -15 eskaintza); eta balio

absolutuetan, LHko ikasketak behar dituzten eskaintzetan murriztu dira gehien (-21 eskaintza, -%21).

2023ko otsailarekin alderatuta, igo egin dira oinarrizko ikasketak behar dituzten eskaintzak (+6, +%15) eta batxilergoko ikasketak behar dituztenak (+2, +%15,4). Aitzitik, balio absolutuetan zein erlatiboetan jaitsiera handiena izan dutenak LHko eskaintzak izan dira, 5 eskaintza gutxiagorekin (% 6ko jaitsiera erlatiboa).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratu diren eskaintzen bolumena kontutan hartuta, manufaktura industriako eskaintzak dira pisu handiena dutenak; % 15,2a hain zuzen ere (185 eskaintza). Atzetik datoz merkataritzako eskaintzak, 145 eskaintza eta hil honetako eskaintza guztien % 11,9a.

Aurreko aldean, gehien jaitsi diren eskaintzak administrazio-jardueren eskaintzak dira (91 eskaintza gutxiago eta % 49,5eko jaitsiera erlatiboa), eta atzetik datoz osasun-jardueren eskaintzak (-61 eskaintza, -%34,1). Bestalde, balio absolutuetan gehien igo diren eskaintzak eraikuntzakoak izan dira (+30), eta balio erlatiboetan gehien hazi direnak, berriz, aisialdi-jarduerak izan dira (+ % 140, 14 eskaintza gehiago).

Urte arteko saldoari dagokionez, jarduera gehienetan igo dira eskaintzak. Zenbaki absolutuetan osasun-jardueren igoera da aipagarriena, 35 eskaintza gehiagorekin (% 42,2ko hazkundea), eta, ondoren, beste zerbitzuen igoera (+27 eskaintza). Jaitsierarik handiena, zenbaki absolutuetan, ostalaritzan izan da, 10 eskaintza gutxiagorekin eta % 11,5eko jaitsierarekin.